

Getxo >MEETING<



Urriak 20

Zure Webguneari heldu aurretik, hausnartu behar duzu.

“Webgune berria egitea” ekintzaile askoren nahien zerrendan dago. Gertatzen zaizu horrelakorik? Hala bada, azken Getxo MEETING saioko laburpena irakurri beharko zenuke. Izan ere, testuak idatzi edo argazkiak aukeratu aurretik kontuan izan behar dituzun zenbait gai izan genituen hizpide.

Gelditu eta pentsatzea lagungarria izango zaizu prozesuan zehar horrenbeste zalantza ez izateko, bai eta zure xede diren pertsoneri hobeto zuzendutako webgunea izateko ere. Hala izango da bai zuk zeuk egiten baduzu, bai profesionalen bat kontratatzen baduzu.

Haxe da Getxo MEETINGen egin duguna: ekin aurretik kontuan izan beharreko alderdiak bereizi ditugu, eta galdera horiek banan-banan erantzun ditugu.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/es/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



Horra hor hiru galdera eta aholku bat:

Nortzuk dira zure zerbitzuen hartzaileak? Zure webgunea ez da enpresa guztietarako, ezta pertsona edo familia guztientzat ere. Zure webgunera sartzen direnak ziur asko adin jakin batekoak izango dira, eremu geografiko batekoak, eta beharizan jakin batzuk izango dituzte. Interes zehatzak. Zure zerbitzuen hartzaileek komunean dutena zenbat eta hobeto ezagutu, orduan eta hobeto definitu ahalko duzu zure estiloa.

Zertarako nahi duzu webgunea? Azken finean zuri erostea nahi duzu, noski. Baina zer nahi duzu zehatz-mehatz besteek egitea? Zure lokalera joatea? Produktu jakin bat erostea? Zerbitzu jakin baten gaineko informazio guztia jasotzea? Benetan zer nahi duzun lehenestea baliagarria izango zaizu erabakiak hartzeko.

Zeintzuk dira zure markaren balioak? Zure webgunea erakusleiho baten modukoa da. Zure enpresaren funtsa helarazteko, funts hori zein den jakin behar duzu. Argi izan behar duzu zein kutsurekin egiten duten bat, testuetan islatu dezazun zer zaren. Orokorrak edo lausoegiak diren mezuak ez helarazteko.

Eta aholku bat: prozesuan zehar, ezinbestekoa da zure negoziokoak ez diren pertsonen zure webgunea edo testuak berrikustea, argitara eman aurretik. Gauzak horrela, ez duzu espezializatuegia den hizkera erabiliko, horrek ez baitizu zure zerbitzuen hartzaileekin konektatzen lagunduko. Era berean, beharrezkoak diren zuzenketak egin ahalko dituzu beranduegi izan aurretik.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/es/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

